Arabako Kultura Plana 2023-2028

Ebaluazio Txostena 2023-2024

2025eko urria

1. Edukia

1. Edukia 2
2. Aurkezpena 3
3. Argazki orokorra 5
4. Lidergoa, kudeaketa eta gobernantza 8
5. Ildo estrategikoen ebaluazioa 17
1. eranskina: jardun-ildoen laburpena 75
2. eranskina: plana begiratu batean 84

2. Aurkezpena

Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Saileko Kultura Zuzendaritzak 2023-2028 Arabako Kultura Plana onartu zuen Foru Gobernuaren Kontseiluaren apirilaren 4ko 196/2023 Erabakiaren bidez. Memoria honek 2023-2024 aldiko jardueren balantzea egiten du.

Hauxe da Kultura Zuzendaritzaren eginkizuna: "Arabako Lurralde Historikoan pertsona eta kolektibo orok, bere generoa, jatorri soziala, sorlekua eta adina edozein izanik ere, kulturarekin gozatzeko eta ikasteko aukera izan dezan ahalbidetzea, praktikaren, sorkuntzaren, asistentziaren edo parte hartzearen bidez; berrikuntzatik eta lan kooperatibotik, bizipen esanguratsuak ematen dituzten kalitatezko proposamenak sortzen ahaleginduz, pertsonak aberasten dituztenak topaketatik, bizikidetzatik eta truketik; garapen harmonikoan, gizarte-ongizatean eta Arabako kultura-ondare materiala eta ez-materiala kontserbatzen eta balioan jartzen lagunduz". Horretarako, esku hartzeko bi gai handitan lan egiten du: batetik, ondarean eta ondareari lotutako zerbitzuetan; eta, bestetik, kultura-ekintzan (kultura-jarduerak sustatzeko eta hedatzeko). Egitura organikoan zazpi zerbitzu daude, eta planaren jarduerak sustatzeaz eta gauzatzeaz arduratzen dira, Arabako kultura-sarearekin lankidetzan:

- Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzua.
- Museo eta Arkeologia Zerbitzua.
- Zaharberrikuntza Zerbitzua.
- Kultura Etxeko Zerbitzua.
- Kultur Ekintza Zerbitzua.
- Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua.
- Ondare Historiko-arkitektonikoko Zerbitzua.

Kultura-eskubideek 2023-2028 Arabako Kultura Planaren oinarri kontzeptuala osatzen dute, eta, funtsean, hiru dimentsiotan onartzen dira:

- **Kultura eskura izateko eskubidea, hau da, dagoen kultura eskaintzaz gozatzeko eskubidea.**
- **Sorkuntzarako eskubidea, kultura sortzeko eskubide gisa ulertuta.**
- **Parte hartzeko eskubidea, hau da, inguruko kultura politiketan eragina izateko eskubidea.**

Premisa horiekin, plana bederatzi ildo estrategikotan hedatzen da, eta honako balio hauek ditu: irisgarritasuna, ekitatea, hurbiltasuna, jasangarritasuna, aniztasuna, identitatea, berrikuntza, zeharkakotasuna, belaunaldiartekotasuna eta kalitatea.

Balio horiek jarduera guztietan (2023-2024 aldian 114 jarduera egin ziren) eta jarduerok garatzeko antolatutako 700 ekintzatan baino gehiagotan ageri daude. Horrek erakusten du Kultura Zuzendaritza —kultura-sarearekin, beste administrazio, erakunde eta entitate batzuekin eta Arabako herritarrekin lankidetzan— egiten ari den ahaleginaren eta anbizioaren tamaina.

2023-2024 Memorian jaso dira planaren tarteko ebaluazioaren emaitzak. Hiru atal handiren arabera egitura da. Honako hauek dira:

- Egindako aurrerapenen argazki orokorra, zeinak modu grafikoan deskribatzen duen non gauden.
- Kapitulu batean lidergoa, kudeaketa eta gobernantza lantzen dira. Bertan azaltzen da nork parte hartzen duen eta nola garatzen den.
- **Ildo estrategikoen azalpen zehatza, non zehatz-mehatz azaltzen baitira zer egiten ari den eta lortutako emaitzak.**

3. Argazki orokorra

— **Asmo handiko plana.** Arabako Kultura Planaren plangintza-ariketa asmo handikoa da, haren irismenari dagokionez. Eskubide kulturaletan oinarrituta dago, eta bederatzi ildo estrategikotan egituratu da. Ildo estrategiko horien formulazioak berekin ekartzen du hainbat arlotako eskubideak: esaterako, Kultura eskura izateko eskubidea, lurraldea, sorkuntza, memoria, parte-hartzea, hizkuntza, eskubide digitalak, lan duina edo antolamendu eraginkorra.

Planean kultura-politiken berezko 23 jardun-eremu jaso dira, eta ehun jardueraren baino gehiagoren bidez garatzen dira.

Zehazki, 2023-2024 aldian, hots, aztertzen ari garen aldian, 114 jarduera ezarri dira planean. Horrek ahalegin handi samarra eskatzen du ekintza horiek bultzatzeko eta martxan jartzeko. Izan ere, planaren indarraldi osorako —2023-2028 aldirako— ezarri diren hamar jardueratik zortzi inguru biltzen dira aldi horretan.




— **Jardueren asimetriak.** Jarduera-kopurua eta jarduerak garatzeko konplexutasuna ez dira modu proportzionalean banatu ildo estrategikoen artean. Horren adibide bat da 1. ildoak 32 jarduera dituela, eta 8. ildoak hiru jarduera dituela. Edukiak ere aldatu egiten dira

irismenaren eta eskatutako dedikazioaren edo konplexutasunaren arabera. Edukiak askotarikoak dira, hala nola arau-tresna berriak, balorazio-batzordeetako kuota-konpromisoak edo lurraldeko kultura-programazioaren edukiak, hiru adibide soilik aipatzearren.


Honako alderdi hauek behatu ditugu, ildo bakoitzeko jardueren garapena edo gauzatzea aztertu ondoren:

- Honako hauek dira ildo garatuenak: 9I, 7I, 2I, 5I, 4I.
- Honako hauek dira gutxien garatu diren ildoak: 1I, 3I, 6I.
- Zortzigarren ildoaren gauzatze-maila erdikoa da.



— **Jardueren ezartze-mailaren balantze orokorra:** Ekintzen **% 73** garapen-fasean daude, fase aurreratuan daude edo gauzatu dira. Jardueren **% 27** hasierako fasean daude edo oraindik ez dira hasi.

Jardueren ezartze-maila orokorra



Aurreko guztia kontuan hartuta, aurrerapen-maila oso ona da, jarduera bakoitzean garatutako ekintzen eta hasi ez direnen zailtasunei buruzko xehetasunetan sartu gabe.

4. Lidergoa, kudeaketa eta gobernantza

Horren sakontasuna duen plan batek ezinbestean izan behar ditu Kultura Zuzendaritzaren eta kultura-sarearen eta sektorearen konplizitatea. Horrek, jakina, lidergo partekatua biltzen duen planteamendua behar du, eta sektoreari ahotsa ematzeko gobernantza-eredu baten arabera lan egin behar da.

Kultura Zuzendaritzaren eskumenen arloak artxiboak, liburutegiak, kultura-ondarea, hezkuntza-sustapena eta kultura-hedapena dira. Ondorioz, kultura-politikaren pisua zuzentzen zaie, batetik, kultura-ondarearen sektoreari, lurraldean aberastasun handia baitu, hura osatzen duten zerbitzuekin batera; eta, bestetik, kultura gizarteari helarazteko xedeari ere, alderdi pedagogikoa eta alderdi hedatzailea barne.

Esku-hartzea hiru ardatz handitan garatu da: lurraldea, sektorea eta herritarrak.

- **Lurraldean, Kultura Zuzendaritzaren ekintzak honako hauek ditu ardatz: kultura-politikak definitzea eta ezartzea, beste arlo eta sektore ekonomiko batzuekiko aliantzak sustatzea eta baliabideak sortzen zein kulturaren arloko zerbitzuak, programak eta jarduerak abiarazten laguntzea.** Gainera, udalerriekin eta kuadrillekin batera egiten da, sareko lana eginez eta haien lana baliabideen, aholkularitzaren eta prestakuntzaren bitartez bultzatuz.
- **Sektoreekin lan egiteko, tresna batzuk, hala nola laguntza-ildoak, ekoizpen propioko programak eta zerbitzuen kontratazioa, kudeatu behar dira, eta prestakuntza- eta aholkularitza-programa espezifikoak ezarri behar dira.** Hori guztia elkarrizketen bidez eta prozesu parte-hartzaileen bidez egiten da.
- **Herritarrei dagokienez, Arabako Foru Aldundiaren proiektu asko herritarrei zuzenduta daude, Kultura eskura izateko eskubidea sentsibilizazioaren, prestakuntzaren eta kultura-hedapenaren bidez sustatzeko.** Kontuan hartu behar da kultura izateko politikek osatzen dutela kultura-eskubideen oinarri bat. Arabako Foru Aldundiak (AFAk) hainbat mailatan esku hartzen du horretarako:

- Hainbat patronatutan parte hartzea, hala nola Santa Maria Katedrala Fundazioan, Arabako Artium Fundazioan, Añanako Gatz Harana Fundazioan, UNEDen edo Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolan.
- Hitzarmenen bidez laguntzea, hala nola UPV/EHUrekin sinatutakoa; proiektu eta egitura desberdinetarako dirulaguntzak, Micaela Portilla Eskola Tailerrari, Ortzai Antzokiari, Garaioni, Azalari, Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoari, Artziniegako Etnografia Museoari, museoen elkarteei eta Sarea sareko Arabako antzokiei emandakoak, besteak beste.
- Prestakuntza programak egitea, hala nola antzerkia eskolara joatea, arte eszenikoen tailerra (TAE Araba), museoetako jarduera didaktikoak, hitzaldiak eta tailerrak Ignacio Aldecoa Kultura Etxean.
- Ondarea zabaltzea eta kontserbatzea.
- Foru Museoen Sarearen bidez, doan.
- Sortzeko laguntza, bekak eta sariak emanez.
- Babesleak, hala nola Araiako Umore Antzerkia, Gasteizko Jazzaldia eta Azkena Rock Festival.
- Irakurzaletasuna eta liburu eta liburutegirako sarbidea sustatzea Ignacio Aldecoa Kultura Etxearen bitartez.
- Jai zikloen programazioa.
- Kontzertu eta ikuskizunen berezko programazioa.

AFA, Gasteizko Udalarekin batera, Arabako kultura-motorra da, erakundeei dagokienez. AFAk baliabideak eta profesionalak ditu, lurralde historikoa dinamizatzeko. Kultura Planean, AFAren barneko antolaketari eta ekintzei dagokienez, garrantzi berezia ematen zaie bere zerbitzuak koordinatzeko barne-lanari, lanaren hedapenari eta kultura-ekintzei. Horrek plangintza egokia eta zuzkidura ekonomikoa eskatzen ditu, kudeaketa aurreratuarekin batera. Hori guztia atal honetan azalduko da.

Dena den, azpimarratu behar da, AFAren lidergoa indartsua izanda ere, kultura-politika ezin dela gauzatu osatzen duen ehuna kontuan hartu gabe. Kultura behetik ere egiten da, jarduera kulturaletan parte hartuz eta jarduera horien parte izanik. Eta horrek gobernantza partekatuko ereduak eskatzen ditu, non kultura-eragileek eta -elkarteek ahotsa izango duten dagozkien erabakiak hartzeko. Horrek esan nahi du beren begirada kultura-politiken diseinu-, garapen- eta ebaluazio-mekanismoetan txertatu behar dela.

Kultura-eskubideetan oinarritutako planteamendu batean ezin dira bereizi gobernantza eta parte-hartzea. Gobernantzak prozesu eta mekanismo bat ezartzen du, politika publikoen garapenean inplikatutako erakundeen, egituren eta eragileen artean elkarreraginean aritzeko eta elkartrukerako eta lankidetzarako harremanak ezartzeko. Ekintza politikoaren adierazlea da, eta adostasunean, kooperazioan eta lankidetzan oinarritzen da. Honako kontzeptu hauek funtsezkotzat hartzen ditu: legitimitatea, parte-hartzea eta gardentasuna.

Hori dela eta, Arabako Kultura Planean lidergo- eta gobernantza-ariketa bikoitza egin behar da, horrelako plangintza-proiektuari eutsi ahal izateko. Gainera, kudeaketa aurreratuko eredua behar da. Ikus dezagun nola gauzatzen den.

Lidergoa eta zerbitzuen inplikazioa

Azpimarratu behar da Arabako Kultura Plana ezartzeko, haren jarraipena egiteko eta ebaluatzeko ariketa ez litzatekeela posible izango AFAren Kultura Zuzendaritza osatzen duten zerbitzu guztien inplikazioaren gabe. Hala, honako hauek jardueren garapenean parte hartzen dute: Artxiboko eta Dokumentu Kudeaketa Zerbitzuak, Ignacio Aldecoa Kultura Etxeak, Museo eta Arkeologia Zerbitzuak, Zaharberrikuntza Zerbitzuak, Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak, Kultura Ekintzaren Zerbitzuak eta Kultura eta Kirol Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzuak.

Lidergoak esleitzeko kontuan hartu zen, batetik, zerbitzu guztiek planaren garapenean parte hartzea eta, bestetik, jardueren jarraipena egin ahal izatea. Zehazki, Kultura Ekintza Zerbitzuak zuzentzen ditu lurraldeko sarbide-politikak, koordinazioa, programazioa, sortzeko eskubidea eta Kultura Batzordearen koordinazioa.



Kultura Etxearen Zerbitzuak kulturaren arloko sentsibilizazioari lotutako jarduerak, herritarren eta funtzioen aniztasuna eta antolaketa eraginkorra lortzeko plangintza lideratzen ditu. Museo eta Arkeologia Zerbitzuak kultura eta gazteria arloak, ondarearen hedapena eta azterketa eta euskararen presentzia lideratzen ditu. Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuak finantzaketa lideratzen du, lurraldea, ondarea eta eremu digitala.

Zaharberrikuntza Zerbitzuak genero-berdintasunaren eta ondarearen kontserbazioaren arloak lideratzen ditu. Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzuak antolaketa eraginkorraren eremuak lideratzen ditu: kooperazioa eta administrazio elektronikoa. Ondare historiko-arkitektonikoaren Zerbitzuak Memoriaren plangintza eta kontrola, lan duina izateko eskubidea eta barneko prestakuntza lideratzen ditu.

Arabako Kultura Planaren barneko lidergoen begirada osatzeko, azpimarratu behar da zerbitzuek inplikazio-maila handia dutela jarduera guztietan. Kasu gehienetan, zerbitzuak egiten duen lidergoarekin batera, gainerakoek ere parte hartzen dute. Berrogei jardueratan baino gehiagotan gutxienez lau zerbitzuk hartu dute parte. Horrek inplikazio-maila handi samarra eskatzen du,

asmo handiko plan bat kudeatzeko konplexutasunarekin batera, jarduerei eta kudeaketa-erantzukizunen banaketari dagokienez. Langileek planaren jarraipenean duten inplikazioa erakusten du taldea 108 lagunek osatzen dutela, eta haietatik 39k, hots, hots, % 36k, zuzenean parte hartzen dutela datuen bilketan.

Barne-lankidetzako lan oso esanguratsua egiten ari da Kultura Zuzendaritzaren zerbitzuen arteko zeharkako lanean sakontzeko. Izan ere, planaren jarraipen-mekanismoak berak, jasotzen duen informazio kopurua eta zehaztasun-maila kontuan hartuta, ezin hobeto erakusten du erakundearen barne-hobekuntzarako eta -eraginkortasunerako egiten ari den lankidetza-lan hori.

Plana, kudeaketa aurreratuko ereduaren arabera


Kultura Plana kudeaketa aurreratuaren ikuspegitik aztertzeak begirada osagarria gehitzen dio azterketari, eta kontuan hartzen du helburua lortzeko eraginkortasuna eta efizientzia. Kudeaketa aurreratuko ereduan bost elementu aztertu dira:


- **Estrategia: behar den informazioa jasota, epe luzeko ikuspegia izateko pentsatuta dago, gogoeta-prozesu parte-hartzaileak egin ahal izateko eta, prozesuen bidez, estrategia hedatzeko eta komunikatu ahal izateko, eta baliabideak estrategiaren zerbitzura kudeatzeko.**
- **Zerbitzuak: erabiltzaileei zuzenduta daude, eta eraginkorrak dira prozesuaren fase guztietan, diseinutik ebaluaziora.**
- **Gizartea: gizartearekiko konpromisoa indartzen du, jardun-eremuko gizarte-ingurunea osatzen duten erakundeen garapena zaintzen du, bertan duen eragina aztertzen du, eta ingurumenaren jasangarritasunean laguntzen duten neurriak bultzatzen ditu.**
- **Pertsonak: proiektu partekatu bateko kide izateko sentimendua sortzeko pentsatuta dago, pertsonei behar bezalako arreta emanez, ezagutza, konpetentziak eta talentua indartuz eta beren autonomia eta taldean lan egiteko gaitasuna garatuz.**

— **Berrikuntza: berrikuntza eremu guztietan erabiltzen da, eta ideiak zein proiektuak kudeatzen dira, gauzatu ahal izateko.**

Ikuspegi orokor batetik, behatu da jarduera gehienak (hamarretik 6) zati berdinetan banatzen direla zerbitzuen eta izaera estrategikoko jardueren artean; eta 10etik 2 gizarte-testuingurura bideratuta daudela. Gainerakoek pertsonei (% 13) eta berrikuntzari (% 5) lotuta daude.

Kultura Planaren ildo estrategikoak azterketaren erreferentziatzat hartzen baditugu, hauxe jasotzen da:





- Kultura eskura izateko eskubidearen lelopean, lehenengo ildoaren ardatz nagusia gizartea da, zerbitzuak, pertsonak eta estrategia ere kontuan hartuta.
- Bigarren ildoaren ardatz nagusia lurraldea da, estrategikoa da, eta zerbitzuei lotuta dago.
- Hirugarren ildoak ere estrategian eta zerbitzuetan izaten du eragina.
- Laugarren ildoak memoria lantzen du, eta jarduerak batez ere zerbitzuen ikuspegitik formulatu dira.
- Bosgarren ildoa parte-hartzeari buruzkoa da, eta ardatz nagusia estrategia da.
- Seigarren ildoa hizkuntza-eskubideei buruzkoa da, eta ardatz nagusia gizartea da.
- Zazpigarren ildoa eskubide digitalei buruzkoa da, eta berrikuntzari lotuta dago, definizioaren beraren arabera. Zerbitzuetara bideratuta dago.

- Zortzigarren ildoaren oinarria lan duina da, eta funtsean pertsonei lotuta dago.
- Bederatzigarren ildoak antolaketa eraginkorra hartzen du ardatz nagusitzat. Orientazioa guztiz estrategikoa da, baina pertsonak eta zerbitzuak ere zaintzen ditu.

Gobernantza partekatua


Arabako Kultura Planaren ildo estrategiko batean (5. ildoan) parte-hartzea lantzen da. Gaur egun, politika publikoek gobernantza-aztarna sakona dute. Kontzeptu horrek boterea eta agintaritza politikoa, ekonomikoa eta administratiboa gauzatzeko moduari egiten dio erreferentzia. Nazio Batuen Erakundeak adierazi du gobernantzak barne hartzen dituela gizarteek boterea banatzeko eta baliabide publikoak eta arazoak kudeatzeko erabiltzen dituzten metodo guztiak (onak zein txarrak). Horrenbestez, gobernantza ona gobernantzaren azpimultzo bat da, non baliabide eta arazo publikoak modu eraginkor eta efizientean kudeatzen baitira, gizartearen premia kritikoei erantzuteko. Gobernantza demokratikoaren modu efektiboak parte-hartze publikoan, kontu-ematean eta gardentasunean oinarritzen dira.

Europar Batasunak, bestalde, adierazi du gobernantzaren kontzeptuak biltzen dituela botereen erabileran eragina izaten duten arauak, prozesuak eta portaerak, bereziki irekitasunaren, parte-hartzearen, erantzukizunaren, efikaziaren eta koherentziaren ikuspegitik.

Planteamendu hori eta printzipio horiek egungo politika ulertzeko modu desiragarriaren berezkoak izan arren, kultura-politikak ulertzeko ariketa hori lotuta dago kulturak gizartea eraldatzeko eta eskubide kulturalak planteatzeko tresna gisa duen gaitasunari. Txosten honetan aztertu dugun plana ezin da diseinatu gobernantza parte-hartzailerik eta partekaturik gabe, aurrerago ikusiko dugun bezala. Izan ere, lehen ebaluazio-memoria hau kontuak emateko eta gardentasuna bermatzeko ariketa bat da.

Parte hartzeko eskubideari lotutako 5. ildoari dagokionez, nabarmentzekoa da jarduerak estrategiko samarrak direla, formulazioetan parte hartzeko mekanismoak eta esparrua ezartzen dituztelako (Arabako Kultura Batzordea, sektoreko mahaiak, lan-esparruak), Kultura Ekintza Zerbitzuaren lidergoaren mende.

Gainera, gobernantza ere kontuan hartu da planean, eta agerikoa da, batez ere, 1. ildoan (Kultura eskura izateko eskubidea); 2. ildoan (lurraldeari lotuta); 3. ildoan (sorkuntzari buruzkoa); 6. ildoan, hizkuntza eskubideei lotuta; eta 9. ildoan, antolaketa eraginkorrari buruzkoa.



Honako hauek guztiak lantzen dira: elkarte profesionalekin lan egitea; kolektibo espezifikoen proposamenak babestea (gazteenak, batik bat); udalerrien eta kuadrillen beharrak koordinatzea, horretan laguntzea eta lankidetzan aritzea; lurraldeko kultura-planetan parte hartzea; euskara-planekin koordinatzea; eragileei laguntzea; lankidetza-proiektuetan parte hartzea; taldeak planaren garapenean inplikatzea; parte-hartzea sustatzea; herritarren beharrei erantzutea edo beste sail batzuekin lankidetzan aritzea. Horrenbestez, lotutako prozesuak eta moduak dira, eta agerian uzten dute gobernantza planean txertatuta dagoela. Izan ere, 25 jardueratan gobernantza lantzen da.

5. Ildo estrategikoen ebaluazioa

Atariko oharrak

Aipatu bezala, memoria honek 2023-2024 aldiko jardueren balantzea egiten du. Memorian jaso dira planaren tarteko ebaluazioaren emaitzak. Horrek eragin berezia izaten du funtsezkoak diren bi alderditan, beraz, kontuan hartu behar dira, eta honako hauek dira:

- Kultura Zuzendaritzan jaso den eta jasotzen den informazioaren tamaina eta kalitatea direla eta, lan handia egin behar izan da informazioa biltzeko tresnak eta informazioa aztertzeko adierazleak diseinatzeko. Definitzeko eta jarraipena egiteko lan horrek 2023ko lanaren zati handia hartu zuen, plana urte horretako apirilean onartu ondoren. Hori dela eta, datuen eta egindako jarduera gehienen erreferentzia 2024. urtea da. Nabarmentzekoa da giza taldeak planaren jarraipen-sistema garatzeko egin duen ahalegina, hori gabe 2023-2024 memoria honetako datuek ez bailukete izango zehaztasun- eta zehaztasun-maila bera.
- Memoria, beraz, tarteko ebaluazioa da, eta egin den lehen ebaluazioa da. Hori dela eta, memoria honek emaitza-adierazle askoren erreferentzia ezartzen du, eta, aldi berean, adierazleen funtzionamenduaren lehen balorazioa da. Hori dela eta, jarduera askotan konpromisoak eta xedeak definitzeko ahalegina egin dela egiazta daitekeen arren, kasu batzuetan oraingoz ezinezkoa da zehaztapen hori egitea. Beste kasu batzuetan, ordea, jarduerak abian jartzeak adierazleak eta xedeak birpentsatzea ekarri du. Jarraipen-sistema sendoa eta sofistikatua izan arren, oraindik ere proban dago, beraz, xede batzuk, oraindik ere, definizio- eta berrikuspen-fasean daude.

Ildoak adierazleen bidez berrikusten direnean, haietako bakoitzaren egoera zehatza azaldu da, honako legenda hau idatzita:


Adierazle horietako xedea bete da


Adierazle horietako xedea betetzeko fasean dago


Adierazle horietako xedea definitzeko edo berrikusteko fasean dago

1. ildoa (1I). Kultura eskura izateko eskubidea

Giza eskubideen esparruan, kultura-eskubideak bigarren belaunaldiko eskubidetzat hartzen dira, eta berdintasun-printzipioari lotuta daude. Horrek esan nahi du politika aktiboak bultzatu behar direla, eskubide horien gauzatzea bermatzeko. Pertsona guztiak ez dira berdin jaiotzen, beraz, botere publikoek esku hartu behar dute kultura izateko aukera berdinak bermatzeko. Horri dagokionez, prestazio-eskubide positiboak dira, eta mailaka aplikatzen dira.

Kultura bizitzan sartzeko eskubidea bigarren belaunaldiko kultura-eskubideen paradigma da. Herritarrek kulturaren gainean duten eskubide nagusia da, eta uneoro, toki eta ekintza guztietan, garatzeko aukera egon behar da. Erakundeek ekimenak jarri behar dituzte abian, betetzen direla bermatzeko. Hortik abiatuta, gainerako eskubide kulturalak bermatzen dira. Benetako berdintasun-araubidea egin behar da, eta ezin da diskriminaziorik egin jatorria, etnia, erlijioa, ideologia, sinesmenak, generoa edo sexu-orientazioa, desgaitasuna, baliabide ekonomikoak edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozial dela eta. Horregatik, diskriminaziorik egon ez dadin bermatzeko eta berdintasuna benetakoa izateko politika aktiboak behar dira.

Arabako Kultura Planaren oinarria kultura-eskubideak dira. Horren harira, planaren lehenengo ildo estrategikoa kultura izatea sustatzen duten jarduerak dira. Ildo estrategiko irekiena da, edukien ikuspegitik; bestalde, zabalagoa da, jardueren zein ekintzen ikuspegitik. Kultura izatea bermatu eta sustatu nahi du, Arabako biztanleriaren profilen aniztasun osoa kontuan hartuta, eta ziurtatu nahi du inor ez dela geratzen lurralde historikoko kultura bizitzatik kanpo, eta bereziki lan egin du tradizioz nagusi den kultura sistematik kanpo geratu diren kolektiboekin.

Ildo horretako bost eremu eta 32 jarduera hedatu dira, hurbiltasunean, kapital kulturalean, genero-berdintasunean, aniztasun sozial eta funtzionalaren bidez kolektibo kalteberei ematen zaien arretan eta gazteei buruzko begirada espezifiko batean oinarrituta.

Kulturarako irispiderako politikak

Herritarren Eskubide Kulturalei buruzko Foru Araua

Publiko eta entzule berriak garatzea

Prestakuntza-zentroak sustatzea

ALHko sortzaileak eta kultura-eragileak sustatzea

Elkarte profesionalei laguntzea eta haiekin hitz egitea

Oso ohikoak ez diren espazioetan programatzea

Kultura ekintzaz sentsibilizatzea

Partikularren jabetzako kultura-ondarea zaintzeari buruz sentsibilizatzea

Familia-programazioari arreta berezia eskaintzea

Irakurketa sustatzeko proposamen berritzaileak egitea

Liburu azokak egiten laguntzea

Kultura-ondareari buruzko jarduera didaktikoen programak garatzea eta indartzea

Genero berdintasuna

Kultur eskaintza orekatua, zabala eta askotarikoa izan dadin sustatzea

Emakumeek egindako ezagutza, ikusgarritasuna, sorkuntza eta ekoizpena bultzatzea

Emakumeek sortutako, sustatutako edo protagonizatutako kultura-ondarea ikusaraztea

Sexuaren arabera bereizitako datuak biltzea

Genero-berdintasunaren irizpideei garrantzi handiagoa ematea diru-laguntzetan

Berezko programazioetan espazio seguruen mekanismoak aktibatzea

Jaietako jardueretan eraso sexistak saihesteko mekanismoak ezar daitezen sustatzea

Funts bibliografikoak genero-irizpideekin eguneratzea eta ikusaraztea

Kultura eta aniztasun sozial eta funtzionala

Kultura-aniztasuna jasotzea programazioetan

Askotariko jatorri eta kulturetako kolektiboekin jardueren eskaintza mantentzea eta indartzea

Kultura-jardueretan dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako espazioak egokitu ditzaten sustatzea

Liburutegiek funts egokituak izan ditzaten sustatzea

Dibertsitate funtzionala duten pertsonen kolektiboekin jardueren eskaintza mantentzea eta indartzea

Talde teknikoak prestatzea dibertsitate funtzionala duen pertsona bati heltzen jakin dezaten

"+55 Elkartegiak" programa antolatzea eta garatzea

Kultura eta gazteria

Gazteen proposamenak babestea

Ikertzaile gazteei laguntzeko neurriak sustatzea

Unibertsitateko ikertzaile gazteei laguntzeko neurriak sustatzea

Gazteentzako jarduera didaktikoen eskaintza mantentzea eta indartzea

Amárica aretoa artista gazteentzako erakusketa eta programa sortzaileekin lankidetzan aritzea

Gazteentzako arreta berezia sustatzea

Balorazioa

Kulturarako irispiderako politikak

Helburua sorkuntza sustatzen eta babesten duten, prestakuntza bultzatzen duten eta publiko berriak garatzen dituzten kultura-politikak eta jarduerak ezartzea da. Ekintzak, nagusiki, hiru gairi buruzkoak izan dira: elkarte profesionalekin lan egitea eta lurraldeko ehuna egituratzea, audientzia berriak garatzea eta ondareari balioa ematea eta prestakuntza-zentroak sustatzea, lanbide tradizionalak berreskuratzeko.

Nabarmentzekoa da ondareari lotutako ekintzen garrantzia, prestakuntza-alderdiaren zein alderdi profesionalaren ikuspegitik. Azpiegitura eta espazio kultural ez-konbentzionalen inbentario bat ere egin da. Asmoa hurbiltasuna sustatzea da, deszentralizazioa bultzatzeko eta kulturarako erabiltzen diren baliabideak modu jasangarrian erabiltzeko ikuspegia gehitzeko.

Kultura-sistemari buruzko lege-proiektu autonomikoak EAEko administrazioen eta eragileen esparru bateratua landuko du, baina egiteko dago. Proiektuaren idazketak baldintzatuko ditu foru administrazio honek Kultur Eskubideen esparruan egin nahi duen edozein xedapen motaren arautze-aukerak.

Jarraipenaren adierazleak

Zehaztutako adierazleen arabera, xedeak ondo samar gauzatu dira.

% 33 ✓
Kultura-programazioan publiko berriak garatzera bideratu diren ekintzen ehunekoa

11 ✓
Kanpoko publikoei zuzendutako prestakuntza- edota ziklo-kopurua

8,4 ✓
Prestakuntzarekiko gogobetetasun-maila

% 72
Kultura-hedapenerako jardueren ehunekoa

11 ✓
Zenbat elkarte profesionaletan oinarritzen den

Kultura ekintzaz sentsibilizatzea

Haren helburua herritarrei kultura-balioaz eta kulturak gizartean egiten duen ekarpenaz ohartzea da. Kultura-ondarea, familiei zuzendutako programazioa eta irakurketa dira sentsibilizazio-ekintza gehienen gai nagusiak. Honako hauek dira arlo horretan egin diren beste sentsibilizazio-ekintza batzuk: ondarearen kontserbazioaz kontzientziatzea eta partikularrei aholkuak ematea, dibulgazio-erakusketak, bisita gidatuen programak eta museoetako eta beste kultura-zentro batzuetako tailerrak. Besteak beste, aipatzekoak dira honako hauek: Kultura Etxeko «Ondarearen Astearteak»; Ondarearen Europako Jardunaldiak eta ondare zaharberritutako orri didaktikoak.

Familiei zuzendutako programazioa dela eta, ardatz nagusia familiei haurrentzako jarduera soziokulturalak proposatzea izan da, familian egiteko doako bisitekin eta tailerrekin batera. Irakurtzeari dagokionez, irakurketa-klubak dibertsifikatzen ari dira, bai publikoei dagokienez, bai gai eta genero literarioei dagokienez.

Liburu-azokak antolatzeko aurreikusitako laguntzari dagokionez, liburuaren mahai sektorial bat eratu da eta sektorea ekimenaren inguruan aztertu da, baina oraingoz ez dago ekimen horren buru izan daitekeen erakunderik. Aldi horretako berritasun handienetako bat Ignacio Aldecoa Ipuinen Nazioarteko Jaialdia da. Oso harrera ona izan du publikoaren artean, eta jada zegoen nitxo bat hartu du.

Horrekin batera, azpimarratzekoak dira jasangarritasunari lotutako edukiak, besteak beste, «Astelehenetako Hitzaldiak» eta Kultura Etxearen beste ziklo batzuk, non garapen jasangarrirako helburuak landu baitira, baita eduki zientifikoen ohiko hedapena ere.

Jarraipenaren adierazleak

Arreta berezia eman behar zaie jarraipen-adierazleen xedeen definizioari eta berrikuspenari.

380.035
Kultura Zuzendaritzako kultura-zentroetara (museoetara, liburutegietara, artxibora) bisita egin duten pertsonen kopurua.

% 29
Hezkuntza-sektoreari zuzendutako jardueren ehunekoa, Kultura ekintzaz sentsibilizatzea xedetzat hartuta

% 10
Kultur-programazioan familiei zuzendutako jardueren ehunekoa

Genero Berdintasuna

Helburuak kultura-sorkuntzan eta -ekoizpenean emakumeen protagonismoa sustatzea eta emakumeek sortutako, sustatutako edo protagonizatutako kultura-ondarea ikusaraztea dira, kultura-jardueretan eta arte-sorkuntzan emakumeek duten protagonismoa eta presentzia kontuan hartuta. Programazio-konpromisoak eta emakume sortzaileen eta hizlarien lana termino paritarioetan ezagutzeko konpromisoak zehazteaz gain, edo antolatutako jardueretan emakumeen protagonismoaren presentzian aurrera egiteaz gain, genero-irizpideen garrantzia handitu da diruz lagundutako deialdien balioespenetan.

Adierazleek emakumeen lidergoa erakusten dute kultura-proiektuen zuzendarien artean (% 62). Halaber, adierazleek erakusten dute Kultura Zuzendaritzak diruz lagundutako hamar proiektutatik sei proiektutan berdintasun-neurriak ezarri direla. Gainera, azpimarratzekoa da dirulaguntzak ematean berdintasun-irizpideek duten pisua, indarreko legeek ezartzen duten % 5etik gorakoa baita.

Genero-berdintasunaren inguruan egindako beste ekintza batzuen xedeak garrantzizko figurak ezagutaraztea eta zaharberritutako ondarean emakumeek duten protagonismoa ikusaraztea izan dira, sailak emandako dirulaguntzen bidez.

Azkenik, sexuaren arabera banakatutako datuak bildu dira, emakumeen egoeraren eta presentziaren gaineko jarraipen zehatza egiteko aukera emango baitu.

Jarraipenaren adierazleak

Xedeen betetzeak erritmo egokian egin du aurrera, eta xedeen erdiak jada gainditu dira. Gainerakoak aribidean dira.

% 65 ✓
Emakumeek lideratu dituzten jarduera edota proiektu kulturalen ehunekoa (erakundeko arduradunak)

% 55 ✓
Emakume interpreteen, hizlarien edota sortzaileen ehunekoa, programazioan

% 8
Berdintasun-irizpideen pisua, dirulaguntzak balioestean

% 60
Berdintasuna sustatzeko neurriak dituzten diruz lagundutako proiektuen ehunekoa

% 20 ✓
Genero-ikuspegia txertatuta duten ondarearen esku-hartzeak (lehiako dirulaguntzak)

% 77 ✓
Aurrekontu-programetako berdintasun-helburuen betetze-maila

Kultura eta aniztasun sozial eta funtzionala

Helburua Arabako aniztasun sozial eta funtzionala barne hartzen duen kultura-eskaintza programatzea da.

Honako hauek izan dira gai horretan egin diren aurrerapenen xedeak: zenbait kolektibori bisita gidatuak proposatzea; behar bereziak dituzten pertsonentzako irakurketa errazeko klubak programatzea, batez ere Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen desgaitasun-arloarekin eta erlazionatutako elkarteekin lankidetzan; eta +55 Elkartegien programazioa garatzea eta hedatzea.

Era berean, aniztasun sozial eta funtzionala duten kolektiboak ikusarazten laguntzeko ekintzak bultzatu dira, San Prudentzio jai-programazioen esparruan paper aktiboa eta protagonista izango duten espazio bat sortuz.

Irisgarritasun espazialaren ikuspegitik, hainbat ekintza egin dira araudiaren ikuspegitik (ISO ondarea eta irisgarritasuna), bai eta espazioak egokitzeko zuzeneko esku-hartzeak eta irisgarritasun-gidak ere. Nabarmentzekoak dira foru-museoak hobetzeko jarduerak (BIBAT Fournier Karta Museoko kartelak aldatzea, errazago irakurtzeko batzuk jartzeko, eta argia hobetzea; BIBAT-Arkeologia Museoan bitrina birtuala ezartzea, kartelak eta testuak bisitarien gailu mugikorretatik irakurri ahal izateko).

Bestalde, elkarteak eta profesionalak justifikatzeko sistema hobetu da, eta aniztasun-helburuak sartu dira; eta lehiako dirulaguntzen balioespenean ere aniztasun-irizpideak sartu dira. Horien emaitzen artean, nabarmentzekoa da diruz lagundu diren 318 jardueretan jada irizpide horiek txertatu direla (jarduera guztien % 69,28n).

Praktika-programei dagokienez, azpimarratzekoa da artxiboko bi pertsonak praktikak egin dituztela, aniztasun funtzionala duten pertsonei zuzendutako laneratze-modulu baten bidez. Oraindik ez da antolatu ekipamenduetako eta prometako teknikariak gaitzeko aurreikusitako prestakuntza, dibertsitate funtzionala duten pertsonekin nola jokatu jakiteko, baina prestakuntza espezifiko bat lantzen ari da, AFAren Funtzio Publikoko Arloarekin batera.

Jarraipenaren adierazleak

Xedeen gauzatzea ontzat hartzen da. Xedeen erdia lortu da, eta beste erdia aribidean dago.

39 ✓
Aniztasun soziala, kulturala edo funtzionala duten publikoei zuzendutako jardueren kopurua

3
Aniztasuna duten pertsonen kolektiboak protagonistatzat hartu dituzten jardueren kopurua

6 ✓
Eraikinen eta espazio publikoen irisgarritasun funtzionalean egindako hobekuntzen kopurua

% 8
Euskara edo gaztelania ez diren beste hizkuntza batzuetako liburutegi-funtsen ehunekoa

Kultura eta gazteria

30 urtetatik beherako gazteen sorkuntza, ikerketa, prestakuntza eta Kultura eskura izateko eskubidea babestea eta sustatzea du helburu. Eremu horretan kultura-eskaintzan gazteek duten parte-hartzea areagotzeko ekintzak egin dira, eta, horretarako, urteko kultura-jardueren, ikastaroen eta jardunaldi espezifikoen kopuru minimo bat programatu da gazteentzat, eta kolektibo horri zuzendutako prestakuntza-praktikak ere antolatu

dira. Larunbat Musikalak adibide bat dira. Formatu txikiko kontzertu- eta ekitaldi-txikia da, eta gehienak Arte Ederretako Museoan egiten dira. 2024ko programan bultzada berezia eman nahi izan zaio talentu gazteari, publiko berriak erakartze aldera.

Eremu horretako ekintzen artean, arreta berezia eman zaie ikertzaile gazteei beka bidezko laguntza emateari eta proiektuei aholkularitza edo laguntza emateari. Hala, urtean "Arabako dokumentu iturriak" ikerketa-beka bi eman dira, historialari gazteek Arabako Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzuak gordetzen dituen dokumentu iturriei buruzko ikerketa lan berritzaile bat osa zezaten. Beka horietako batek genero-ikuspegia zeukan. Bestalde, honako hauek dira curriculumetik kanpoko praktika akademikoak egiteko Hezkuntza Kooperazio Programaren datuak: lau, Zaharberrikuntza Zerbitzuan (2023: 2; 2024: 2); museoetan, bat (2024), eta sei, artxiboan.

Horrez gain, zortzi beka eman zaizkie gazteei, arte eszenikoetako eta musikako prestakuntza-ekintzak finantzatzeko. Sortzaile gazteei ere espazioak eskaini zaizkie, eta gazteen kolektiboari zuzendutako programekin lankidetzan jarduten da (Gazte Klik Klak eta Tetrapack programekin, besteak beste). Jarduera didaktikoak indartzeko edo gazteen proposamenak babesteko ekintzak ere badaude.

Jarraipenaren adierazleak

Jarraipen-adierazle gehienek aurrerapen positiboa izan dute.

66 ✓
Gazteei bereziki zuzendutako kultura-programako jarduerak, ikastaroak eta jardunaldiak.

% 29 ✓
30 urtetatik beherako gazteen ehunekoa, sorkuntza-sarien hautagaien artean (kartelei eta lan literarioei emandako sariak barne).

17
Kultura-programazio propioan gazteak protagonistatzat hartu dituzten jardueren kopurua

6 ✓
Gazteei zuzendutako prestakuntza-praktiken eta beken kopurua

Aurrerapenen sintesia

Ildoaren jardueren garapen-maila


Jardueren % 81 jada hasi da, eta haietatik % 53 fase aurreratuan edo garapen-fasean daude. Ildo hori osatzen duten neurrien kopuru handia kontuan hartzen bada, garapen-maila egokia lortu da.

% 81
Hasitako jarduerak

% 53
Fase aurreratuko edo garapen-faseko jarduerak

% 28
Hasierako fasekoak

% 19
Hasteko dauden jarduerak



Xedeen betetzea (eremu bakoitzeko adierazleak)

Xedeen betetzea oso handia da, baina oraindik ere adierazle batzuen xedeen definizioan aurrera egin behar da.



2. ildoa (2I). Kulturarako eskubidea, lurraldetik

Politikak lurraldean aplikatzen eta gauzatzen dira, beraz, lurraldeak kultura-ekintzaren eragin-eremua zehazten du. Gainera, lurraldea ingurune fisikoa baino gehiago da: kultura-esparrua da, non harremanetarako eta kultura-praktiketarako eredu kolektiboak sustatzen baitira. Hori dela eta, ingurunearen eta kulturgintzaren arteko eraginaren ondoriozko eremua izateaz gain, ezinbesteko faktore banaezina da hurbiltasun-politiketan eta kultura jasangarrirako politiketan.

Kultura tresna eraldatzailetzat eta komunitatea garatzeko tresnatzat hartzen badugu, lurraldea da kulturaren ardatz egituratzaile bat. Kultura-faktoreak kontuan hartu behar dira lurraldearen plangintzako prozesuetan, eta, halaber, lurraldearen espazioak eta fisikotasunak kultur-plangintza baldintzatzen dute. Eta Arabako Kultura Plana ez da salbuespen bat.

Araba EAEko lurralde hedatuena da, eta biztanle-kopuru txikiena eta barreiatuena dauka. Biztanle gehienak Gasteizen bizi dira (zehazki, lurraldeko biztanleen % 75). Errealitate horrek AFAren Kultura Plana baldintzatzen du; izan ere, planaren ildo estrategiko batek bermatu nahi du biztanle guztiek baldintza berdinetan kultura sortzea eta kulturaz gozatzea. Foru-erakundea izanda, AFAk bere jardun-eremuan kultura izateko aukera biztanleen artean orekatzeko ardura dauka, udalerriekin eta kuadrillekin batera. Udalerriak eta kuadrillak ezinbesteko laguntzaileak dira, eta lurraldean kultura-eskubideen betetzea bermatu behar dute. Lurraldea ezin da izan kultura jasotzeko oztopo bat, baizik eta parte-hartzea modu eraginkorrean eta orekatuan gauzatzeko esparru bat.

Helburu hori betetze aldera, planean jaso dira kultura-ekintza lurraldean antolatzeko jarduerak. Horren barne hartu dira udalerriekin eta kuadrillekin koordinatzeko eta plangintza osatzeko neurriak. Horrez gain, udalerrien eta kuadrillen premiak ere sustatzen eta finantzatzen dira, eta programazio askotarikoa, anitza, deszentralizatua eta deseztazionalizatua dutela ziurtatzen da.

Ildo estrategiko hori hiru eremutan eta 14 jardueratan gauzatzen da.

Azterketa, plangintza eta koordinazioa

Lurralde-koordinaziorako mahai iraunkorra indartzea

Arabako artxiboei eta dokumentu-ondareari buruzko esperientziak eta ezagutzak trukatzea

Udalerri eta kuadrilletako kultura-planak sustatzea, babestea eta horietan parte hartzea

Lurraldeko kulturako teknikarien egoeraren azterketa

Liburutegi zerbitzua lurralde osora hedatzeko formulak aztertzea

Kulturako erakundeekiko lankidetza-proiektuetan parte hartzea sustatzea

ALHko kulturako ekipamenduen mapa egitea

Finantzaketa

Diru-laguntzen programa mantentzea eta udalerrien eta kuadrillen beharretara egokitzea

Deialdien prozedurak sinplifikatzea

Eragileei laguntza eta aholkularitza eskaintzea

Programazioa

Kultur eskaintza egonkorra eta etengabea bermatzea urte osoan

Dauden kultura-programak indartzea eta deszentralizazioa indartzea

Dibulgazio zientifiko-teknikoa, filosofia eta pentsamendua txertatzea edo sustatzea

Foru museoei edo ondare-ondasunei lotutako kultur jarduerak sustatzea

Balorazioa

Azterketa, plangintza eta koordinazioa

Helburua Arabako lurralde historikoaren kultura-errealitatea aztertzea da, baita kulturgintza koordinatua antolatzea ere. Lurralde-koordinaziorako mahaia indartze aldera, bilera-kopurua handitu da, eta garrantzi handiagoa eman zaio parte hartzeari, baita Arabako Kultura Batzordearekin koordinatzeari ere.

Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzuak bultzatuta, sektore-mahai bat sortu da, Arabako kuadrillen artxiboen ardura duten teknikarien lana koordinatzeko. Gainera, biztanleen ehuneko ehunari liburutegi-zerbitzua unibertsalizatzeko gaiari lehenengo aldiz heldu zaio. Horretarako, gaiari buruzko hausnarketa egin zen Arabako Kultur Foroan, eta Arabako lurralde historikoko eta Gasteizko liburutegietako langileek eta kultura-teknikariek parte hartu zuten. Nafarroako Gobernuaren Liburutegien Zuzendaritzak Nafarroako hainbat eremutan ezarritako eredua azaldu zuen foro horretan, Arabakoekin pareka daitekeelako.

Kultur-ekipamenduen mapari dagokionez, lehenengo fasea osatu da. Tokiko erakundeei inkesta bat egin zaie egungo ekipamenduei buruz, datuak Geoaraban sartu ahal izateko. Egun arte, 400 kultur-ekipamendu edo -espazio baino gehiago identifikatu dira, eta bertan lurraldeko kultur-jarduera garatu daiteke.

Jarraipenaren adierazleak

Xedeen betetzea gauzatzen ari da, eta dinamika berri bat sortzen ari da prozesuan.

2 ✓
Lurralde-koordinaziorako mahai iraunkorraren bilera kopurua

1* 🔋
Arabako Kultura Batzordearen bilera-kopurua
* 2024ko abenduan eratu zen

6 🔋
Sektoreko mahaien kopurua

Finantzaketa

Arlo horretan dirulaguntza-programari eutsi nahi zaio, eta erakunde hartzaileen arabera egokitu nahi da. Horretarako, deialdien prozedurak sinplifikatu nahi dira, eta aholkularitza eskaini nahi da.

Arreta berezia eman zaio eragileei lagun egiteari. Besteak beste, prestakuntza eman zaie finantzaketa- eta ekonomia-arloetan, KulturAraba Bulegoarekin batera, eta tokiko erakundeekiko komunikazioa hobetu da, izapideetan aholkularitza emateko. Bultzatu diren ekimenetako bat dirulaguntzen izapide aurreratuak egitea izan da. Horren xedea urtearen lehenengo sei hilabeteetan laguntzak ematea eta diruz lagundutako proiektuen finantzaketa erraztea da.

Gainera, lagun egiten duten zerbitzuen hartzaileen eta dirulaguntzen eskatzaileen iritzia ere ezagutzen da, gogobetetasun-inkesten bidez.

Jarraipenaren adierazleak

Xedeak betetze maila ona, adierazleetako batean xedeak definitu edo berrikus behar diren arren.

% 68
Lehenengo sei hilabeteetan emandako dirulaguntzen ehunekoa

6,8
Dirulaguntzen programarekiko gogobetetze-maila (10 punturen gainean)

7,3
Jasotako laguntzarekiko eta aholkularitzarekiko gogobetetze maila (10 punturen gainean).

% 92
Dirulaguntzen lurralde-estaldura (dirulaguntzak jaso dituzten 53 udalerrien ehunekoa)

% 93
Aurrekontu justifikatuaren ehunekoa (lehiaren bidezkoak eta zuzenak)

Programazioa

Helburua urte osoan kultur-eskaintza deszentralizatua, egonkorra eta etengabea bermatzea da.

Lehenik eta behin, ondarearen kudeaketa indartu da, lurraldearen ardatz egituratzailea delako. Horrez gain, AFAren programak deszentralizatu dira, eta jarduera-kopuru handia hiriburutik kanpo antolatu da. Adibide moduan, Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzuak, Gasteizen egindako erakusketekin batera, lehenengo aldiz, erakusketak lurraldeko beste herri batzuetan ere antolatu ditu (zehazki, Uribarri Gaubean (Artxibo biziak); eta Dulantzin, Vicente López, Lautadako Kronista)).

Era berean, jarduera gehiago antolatu dira, udan ez den beste urtaro batzuetan ere, eta, besteak beste, prestakuntza, eztabaidak, topaketak eta liburuen aurkezpenak indartu dira. Bestalde, hain konbentzionalak ez diren espazioen programazioari dagokionez, ekintza berriak egin dira, publiko berria erakartzeko. Kontzertuak egin dira Kexaako monumentu-multzoan eta Fontechako Orgaz dorrean. Familia-tailer bat antolatu da Aramaioko Sastiña Elizan, musika-ibilbide bat egin da Apellaniz herrian eta Izki Parke Naturala eta Eguren Ugarte upategia bisitatu dira. Horrez gain, kalejira bat egin da Gasteizko erdigunean eta Kargalekuan (Kultura Etxeko garajean). Kontzertuak antolatu dira lurraldeko leku bereizgarrietan, hala nola San Pedro elizan, Santa Maria Katedralean, Ignacio Aldecoa Kultura Etxean, Guardiako Erregeen Santa Maria Elizan, Arabako Arte Ederren Museoan, Armentiako Basilikan edo Artziniegako Artearen Andre Maria Santutegian.

Halaber, antzerki-programazioari ere arreta eman zaio, eta laguntza eman zaie lurraldean sortutako eta bertan programatzen duten erakundeei. Gainera, publiko berrien garapena ere lantzen dute. Nabarmentzekoak dira honako programa hauek: Haziaraba programan 3 urtetik beherako umeentzako 9 saio antolatu dira; "Antzerkia eskolara heltzen da" programan 31 proposamen antolatu dira lurraldeko 34 ikastetxetan; Ortzai programa landa-eremuko antzerki-programa da, eta sei herritan egin dira antzezlanak. Horrez gain, laguntza eman zaio Agurain, Amurrio, Dulantzi, Zigoitia eta Urkabuztaiz herrietako antzokien programazioari.

Bestalde, bereizita aipatu behar dira zientziaren, filosofiaren eta pentsamenduaren arloetako jarduerak. Kasu horietan, ondarea kontserbatzeari eta zaharberritzeari buruz egin diren ikerlan zientifiko-teknikoak hedatzea izan da helburu nagusia. Horretarako, "Zaharberritzen dugu Araban" programa antolatu da ondarea zaharberritu duten herrietan.

Azkenik, nabarmentzekoa da tokiko erakundeekin egindako lankidetza, komunitatea eta ondarea konektatzeko jarduerak garatzeko. Eta, halaber, aipatzekoak dira foru-museoen hitzaldiak. Era berean, Ondareari buruzko Europako jardunaldien programa ere gauzatu da. Programa horretan hedapen-jarduerak proposatzen dira, Gasteiz ez den beste leku batzuetan ere (2023an, 9 herritan antolatu ziren; eta 2024an, 16 herritan). Aiaraldean, Eusko Jaurlaritzarekin turismo-zerbitzuen eskaintza integratua garatzeko sinatutako hitzarmenaren esparruan, kultura-ibilbide berriak eta museoak eta dorretxeak sustatzeko baliabideak diseinatu dira.

Jarraipenaren adierazleak

Xedeen gauzatzea erdibidekoa izan da. Horretan kontuan hartu da zortzi kasutatik bi kasutan ez dela xederik zehaztu (eta ez dago denbora-begirada bat osatzeko datu nahikorik). Lau kasutan xedeak bete dira, eta bi kasutan lortzeko prozesuan daude.

856

Gasteizko kuadrillatik kanpo antolatu diren kultura-jardueren kopurua.

_334 jarduera antolatu **dira 0 eta 200 biztanleko udalerrietan**: Guztizkoaren % 39 (biztanleen % 18,89).
_234 jarduera antolatu dira **200 eta 1.000 biztanleko udalerrietan**: Guztizkoaren % 27 (biztanleen % 15,88).

74.419

Parte-hartzaileen kopurua, Gasteiztik kanpo antolatu diren jardueretan

2025ean aldakuntza-tasa eskainiko da.

8,8

Jardueretan parte hartu dutenen gogobetetasun-maila (0-10)

% 14

Gutxieneko jarduera-kopurua, hiruhilabeteko bakoitzean, urteko guztizkoarekin erkatuta.

% 96

Kultura-jarduerak izan dituzten udalerrien ehunekoa (53 udalerri)

4,6

Arabako lurralde historikoko kuadrilla bakoitzean eta Trebiñuko enklabean urtean antolatu diren jardueren gutxieneko kopurua, 1.000 biztanleko

Aurrerapenen sintesia


Ildoaren jardueren garapen-maila

Jardueren garapenari dagokionez, balorazioa oso ona izan da. Hasi ez diren jarduerak baino gehiago dira amaitu diren edo fase aurreratuan daudenak.

% 35
Jarduera amaituak edo aurreratuak

% 50
Garapen-fasean dauden jarduerak

% 19
Hasteko dauden jarduerak



Xedeen betetzea (eremu bakoitzeko adierazleak)

Xedeen betetzeari buruzko balorazioa ona da, nahiz eta adierazleen heren batek helburu zehazturik ez izan.



3. ildoa (3I). Sorkuntzarako eskubidea

Sorkuntza kulturaren abiapuntu, nukleo eta detonatzailea da. Pertsonen adierazkortasunean oinarritzen da, eta komunitate baten kulturaren bizigarritasunaren erdiko faktorea da.

Kultura-eskubideen ikuspegitik, pertsona orok eskubidea dauka komunitate bateko adierazpen espiritualetan, materialetan, intelektualetan edota emozionaletan parte hartzeko. Kultura-politiken erronka, beraz, sorkuntzari lotutako zerbitzuak garatzea da. Sortzeko askatasuna bermatzeaz gain, sorkuntza erabat gauzatzeko baldintzak sustatu eta bultzatu behar dira. Horretarako, politikek gai izan behar dute sormen-talentuaren garapena bultzatzen duen hazkuntza-salda sortzeko. Interesgunea pertsonen gaitasunaren garapenera bideratu behar da, guztiok dugun berezko potentziala azaleratu eta azaleratzeko behar diren tresnak eta baliabideak erabilgarri jarrita. Bestela esanda, baldintza egokiak sortzean datza.

Arabako Foru Aldundiak, Kultura Planaren bidez, zenbait ekintza zabaldu ditu Araban sormen-prozesuak garatzen dituzten pertsonei zuzenduta , pentsatzen baitu sorkuntza artistikoaren bidez kultura-identitatea indartuko dela, eta gizartea aberastuko dela.

Ildo horretatik, kultura-planean 5 jarduera jaso dira gaitasunak garatzera, proiektu jasangarriak bultzatzera, sorkuntza-sarea zaintzera, sare hori ikusaraztera eta eragileen arteko lankidetzara bideratuta.

Sorkuntzarako eskubidea

KulturAraba Bulegoa programa indartzea eta zabaltzea

Kulturako proposamenen eta natura-ingurunearen arteko harremana indartzea

Sorkuntzarako laguntza egonkorrak prestatzea, unean uneko laguntzatik harago

Kultura-eragileen direktorio digitala ezartzea Arabako Kulturaren webgunean

Balio-kateko eragile guztien arteko lankidetza bultzatzea

Balorazioa

Sorkuntzarako eskubidea

Ildo horren bidez, arte-sorkuntza bultzatu nahi da, dagoen talentua eta potentziala agerian uzteko.

Sortzea, maiz pentsatzen denaren kontra, ez da egitate isolatu bat, baizik eta une bateko jenialtasunaren araberakoa. Sorkuntza prozesu luze, konplexu eta zorrotzaren ondorioa da. Inspirazioaren zain egotea baino beharrezkoagoa proiektuei ekitea. Hori dela eta, kultura-politikek sortzaileei lagundu behar diete prestakuntza jasotzen, aholkularitza eman behar diete etapa hasiberrietan, bai eta orientabidea ere, ideiek emaitzak eman ditzaten eta errealitate bihur daitezen. KulturAraba Bulegoak hori indartu du, honako baliabide hauek erabilita:

Bidelaguntza, kultura-proiektuen garapenari emandako laguntza pertsonalizatua eta egokitua.

Kultur-eragileei eta sortzaileei zuzendutako prestakuntza-programazio egonkorra.

Sortegin programa, enbrioi-egoeran dauden zortzi kultura-proiektu garatzeko prestakuntza trinkoko jardunaldi bat.

Bestalde, sormen-lana eta, bereziki, sormen-ibilbideen garapenak ikusgarritasuna eta kontaktuak, aliatuak eta beste eragile batzuekiko harremanak behar ditu. Eremu horretan egindako ekintzen helburua balio-kateko eragileak berezko programazioan egotea sustatzea izan da; horren adibide bat Ignacio Aldecoa Ipuinen Nazioarteko Jaialdia da. Horrez gain, zeharkako kontzeptuei lehentasuna eman zaie sektore-mahaietan, eta prestakuntzako jarduerak indartu dira. Ildo horretatik, nabarmentzekoa da literatura-sorkuntza sustatzeko lau ekimenen deialdia: hiru sari eta beka bat eman dira, haietako bi gaztelaniaz, eta beste bi, euskaraz. Sorkuntza arte plastikoetan sustatzeari dagokionez, aipatzekoak dira Amárica Aretoan antolatutako 12 erakusketak (2023an 7 egin ziren, egindako guztiak; eta 2024, bost, guztira zortzi ziren). Sorkuntza sustatzeko beste proiektu bat Arabako jaiak iragartzeko kartel-txapelketa da. Gainera, artista gazteen parte-hartzea sustatzen du. Ikusgarritasunari dagokionez, hainbat espazio eta esparrutan sustatu da, hala nola argazkigintza artistikoan eta literaturan, besteak beste.

Edonola ere, sorkuntzari ematen zaion laguntza kultura-politiken ahulgunea izan ohi denez, Arabako lurraldean sormen-sare sendoa eratuko bada, aurreikusitako ekintzak osatzeko ahalegina egin behar da. Bide onetik doaz, besteak beste, sorkuntza- eta hedapen-proiektu kulturalak laguntzeko dirulaguntzen deialdia edo zerga-arloan onurak lortzeko ziurtagiriak igortzea. Aurrekontu-ekitaldia baino iraupen luzeagoa duten tresna juridikoak artikulatzeko zailtasunak direla eta, sorkuntzarako laguntzak garatzeke geratuko lirateke, laguntza horiek laguntza puntualak baino handiagoak izango dira, eta dimentsio anitzeko laguntza eskainiko dute (espazioak, nazioartekotzea, kontaktuak, kontratazioa, etab.).

Jarraipenaren adierazleak

Zenbait adierazlek ez dute xede definiturik, nahiz eta magnitudeak positibo samarrak izan. Xedeak bete egin dira gainerako adierazleetan.

% 25 ✓
Kultura-programazioaren barneko prestakuntza artistikoaren deialdian beka jaso zuten pertsonen ehunekoa (ondoko 4 urte)

% 73
KA Bulegoak aholkatutako proiektuen ehunekoa; proiektu horiek gauzatu dira 2 urteko epean (aurreko 2 urteetan)

7,1 ✓
KA Bulegotik jasotako laguntzarekiko eta aholkularitzarekiko gogobetetze maila

% 3,5 ✓
Kultura Zuzendaritzaren aurrekontu osoaren ehunekoa, sorkuntza artistikoa sustatzera bideratuta

% 94,8
Sorkuntzarako eta kultura-hedapenerako dirulaguntzen programaren aurrekontu osoaren ehunekoa, justifikatuta

5,8
Eskatzaileek sorkuntzarako eta kultura-hedapenerako dirulaguntzaren programarekin duten gogobetetze-maila (10 punturen gainean)

7,1 ✓
Eskatzaileek sorkuntzarako eta kultura-hedapenerako dirulaguntzen programaren bidez jaso duten laguntza eta aholkularitzarekiko gogobetetze-maila (10 punturen gainean)

4 ✓
Kultur-ekimen nabarmenduei emandako sari eta aintzatespenen kopurua


Aurrerapenen sintesia

Ildoaren jardueren garapen-maila

Zaila da ildo hori inplementatzea, eta jarduera ugari hasteko daude.

% 40
Garapen-fasean dauden jarduerak

% 60
Hasteko dauden jarduerak



Xedeen betetzea (eremu bakoitzeko adierazleak)

Xede batzuetan ibilbidea egin da, gehienak bete dira, eta adierazle batzuek definitzeko edo berrikusteko adierazle batzuek dituzte.



4. ildoa (4I). Memoriarako eskubidea

UNESCOren arabera, ondarea da aurreko belaunaldietatik jaso dugun kultur-legatua, orainean bizi duguna eta hurrengo belaunaldiei transmitituko dieguna. Definizio zabala da, eta espazio naturalak, monumentuak eta balio kultural handiko objektuen bildumak sartzen dira bertan, hala nola adierazpen biziak, ahozko tradizioak, jai-ekitaldiak eta izaera immaterialeko bestelako elementu ukiezinak.

Gaur egun, ondarea kontzeptu dinamikoa, inklusiboa eta irekia da, eta memoria bizian eta aldakorrean oinarritzen da. Eta hala da gizarteak zaindu nahi dituen eta hurrengo belaunaldiei transmititu nahi dizkien balioak ere bilakatzen direlako. Ikuspegi horretatik, ondarearen kudeaketa planteamendu integral baten arabera egiten da. Horren barne hartzen dira, besteak beste, identifikazioa, dokumentazioa, ikerketa, kontserbazioa eta babesa. Horrez gain, konpromisoa dauka ondarea transmititzeko, sustatzeko eta balioesteko.

Ondarearen balioespena bilakatu da, eta ez da soilik memoria kolektiboaren oinarritzat edo ezagutza historikorako tresnatzat hartzen, baizik eta gizarte-kohesiorako, identifikaziorako eta bultzada sozioekonomikorako elementutzat. Ezagutzaren demokratizazioaren eta kulturarako sarbidearen ikuspegitik, gaur egungo ondare-politikek ondarea lehengoratzeaz, babesteaz eta kontserbatzeaz gain, balioa gizarteari eskuratu nahi diote, herritarrek ondareaz goza dezakete. Ikuspegi hori gako da herritarren kultur-eskubideak aintzat hartzeko, eta garrantzitsua da baliabide dinamizatzaile gisa, batez ere, kultur-turismoa erakartzeko gai delako.

Araban kultura-ondarea lehen mailako aktiboa da, Arabako lurralde historikoko eta beste jatorri batzuetako bisitariak erakartzeko faktorea delako. Kultura Zuzendaritza Kultura Ondarearen kudeaketan eskumenak dituzten eragile nagusietako bat da, eta epe luzera haren kontserbazioa, zaharberritzea, benetako mantentzea eta lurraldeko kultura-ondasunen balioa nabarmentzea ziurtatzeko neurri integralak ezartzen lan egiten du, ezagutza eta esperientzia egokiak sortuz.

Ildo estrategiko hori 5 eremutan eta 22 jardueratan gauzatzen da. Eremu eta jarduera horiek barne hartzen dituzte museo, artxibo eta liburutegien kontserbazio- eta zaharberritze-zerbitzuen multzo bat; eta planak, ikerketa-proiektuak, kultura-jardueren programak eta era guztietako hezkuntza-zerbitzuak ere badaude, jarraian ikusiko dugun bezala.

Ondarea ezagutaraztea eta balioestea

Komunikazio plana ezartzea.

Ondarearen seinaleak hobetzea

Ezagutzaren zabalkundea: kontserbazioaren eta zaharberritzearen arloko argitalpen espezializatuak eta jardunbide egokiak

Gastronomiaren eta kultura-ondarearen arteko lotura indartzea

Artxiboan inpaktu artistikoko jarduerak programatzea

Ondarea kontserbatzeko zentroetan arreta zabaltzea (artxiboak, museoak eta liburutegiak)

Bisita gidatuak Zaharberrikuntza Zerbitzura

Foru museoetan jarduera didaktikoen programak jarraitzea eta indartzea

Ondarea kontserbatzea eta zaharberritzea

Euskal kirol tradizionaletarako azpiegiturak kontserbatzea eta balioestea

Arabako dokumentu-ondarearen kontserbazioa bermatzea

Monumentu eta aztarnategi arkeologikoak kontserbatzeko eta mantentzeko lanak indartzea

Ondasun higigarri artistikoak eta arkeologikoak biltegiratzeko eta kudeatzeko espazioak hobetzea

Erakundeen eta partikularren artean ondasun artistiko, historiko-arkitektonikoen zaharberritzea sustatzea.

Kultura-ondarea kontserbatzeko esku-hartze zuzenak kudeatzea

Ondarea ikertzea, dokumentatzea eta katalogatzea

Arabako folkloreko eta herri tradizioko elementuak berreskuratzen laguntzea

Araban ahozko memoria zaintzeko ekintzak eta proiektuak babestea

Ikerketa-proiektuak sustatzea

Plangintza eta kontrola

Euskal Kultura Ondarearen Legea kontrolatzen eta betetzen dela bermatzea

Antolamendu-plangintza eta birgaitze-planak berrikustea eta aldatzea

Memoriaren eta ondarearen sektoreko plan espezifiko bat egitea

Finantzaketa

Finantzaketa eta entitateekiko lankidetza-programak sustatzea eta indartzea

Kontserbatzeko eta zaharberritzeko laguntzen deialdiak aztertzea

Balorazioa

Ondarea ezagutaraztea eta balioestea

Eremu horretan ondarea zabaltzen eta ondareari balioa ematen saiatzen da. Horretarako, jarduerak, bisita gidatuak eta argitalpen espezializatuak egiten dira.

Zabalkundeak barne hartzen ditu ondare-zerbitzuen irisgarritasunean eragina duten hainbat ekintza, hala nola artxiboak, museoak eta liburutegiak. Horretarako, ordutegiak handitzen dira, bisita daitezkeen ondasunei lotutako seinaleak hobetzen dira, eta era guztietako ondare-esku-hartzeek sortutako ezagutza eskuratzeko baldintzak ahalbidetu eta sinplifikatzen dira. Ildo horretatik, aipatzekoa da ondare historikoaren gaineko esku-hartzeetan jardunbide egokiak zabaltzeko lana eta ondareari buruzko argitalpen espezializatuak egiteko ahalegina (kultura-ondasunen inguruetan zoladura-jarraibideak ematea edo ardoaren eta mahastiaren kultura-paisaia). Web-orria eta sare sozialak astero eguneratzen dira, ondarearen zabalkundearekin lotutako berrikuntzak gehituz.

Ondareari balioa emateari dagokionez, nabarmentzekoak dira hezkuntza- eta pedagogia-ekintzak, hala nola museoetako jarduera didaktikoen programazioa, aldi baterako erakusketak, bisita gidatuak eta zaharberritutako ondareari buruzko orri didaktikoen eta dibulgazio-orrien argitalpenak. Gainera, zientzia-komunitateari ezagutza zabaltzen zaio kongresuetan, bileretan eta tailerretan parte hartzeko aukera emanez.

Eremu horretan nabarmentzekoa da "Alferrak eta gaizkileak" erakusketa, memoria historikoa ez ahazteko, zehazki, frankismoak homosexualak errepresaliatzeko memoria. Erakusketa Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzuaren ardurapean egon da. Horrez gain, Celaya Fundazioaren Bilduma Arte Ederretako Museoaren funtsei gehitu zaie, eta Martiodako erlikien multzoa bilduma iraunkorrean txertatu da, eta bereziki nabarmentzekoa da Martiodako Erlikiak obraren edizioa. *Azterketa eta zaharberrikuntza (2023).* Azkenik, aipatu egin behar da "El Patrimonio Cuenta – Ondarearen balioa" izeneko programa. Arabako Foru Aldundiak diruz lagundutako kultura-ondarea kontserbatzeko eta zaharberritzeko lana modu sinplean zabaltzean datza; horretarako, eduki digital ireki eta askeak sortzen dira (testuak, argazkiak, ikus-entzunezkoak, batez ere ConMiWiki proiektuaren esparruan), esku hartutako ondareari buruzko informazio esanguratsua herritarrei itzultzeko

helburuz. Halaber, azpimarratzekoa da museoetan, artxiboan eta jatetxe-arloko zerbitzuan egindako bisitek eta programek balioespen oso ona jasotzen dutela.

Jarraipenaren adierazleak

Xedeen betetze-maila ona da.

3
Argitalpen espezializatuen kopurua, ISBNrekin argitaratuta

19
Zenbat kultur-ondasunen seinale hobetu diren

23
Ondarea hedatzeko eta ondareari balioa emateko aldi baterako erakusketen kopurua

45
Dibulgazio-jarduera zehatzen kopurua (hitzaldiak, solasaldiak, jardunaldiak)

9,1
Museoetako tailerretako programekiko gogobetetze-maila

9,3
Arabako Artxiboaren, Museoen eta Zaharberrikuntza Zerbitzuaren bisita gidatuekiko gogobetetze-maila (0-10 arteko inkesta)

9,3
Museoei egindako bisita askeetan izandako gogobetetze-maila (0-10 arteko inkesta)

Ondarea kontserbatzea eta zaharberritzea

Kultura-ondarea kontserbatzeko eta zaharberritzeko, ekintzak egin behar dira hainbat eremutan. Sailean hainbat zerbitzuk hartzen dute parte (Ondare Historiko Arkitektonikoa, Zaharberrikuntza, Museoak eta Arkeologia, Artxiboko eta Dokumentuen Kudeaketa). Elkarlanean eta diziplinen artean, ekintza ugari egiten dituzte.

Hitzarmen, agindu edo fundazioen bidez sortu diren esku-hartzeak sustatzen eta bultzatzen dira, baita Arabako Foru Aldundien ondasunetan egiten diren esku-hartzeak ere. Zehazki, honako hauek dira adibide nabarmenetako batzuk: foru-jabetzako eraikin katalogatuak, hala nola Kexaako Monumentu Multzoa, Tobillaseko harrobi historikoak, La Hoya herrixka, Guevaratarren dorretxea eta Lapuebla de Labarcako dolarea, Santa Maria

Katedrala eta Añanako Gatz Harana fundazioei egindako ekarpenak eta Fontechako Micaela Portilla Eskola, Gasteizko Gotzaindegiarekin hartutako akordioak, erlijio-ondarean esku-hartzeak egiteko; eta Eusko Jaurlaritzarekin egindako akordioak ere, Ozioko Lanosko Gazteluan esku hartzeko, Labrazako harresiak eta Iruña-Veleiako aztarnategi arkeologikoa. Azken hori Europar Batasunaren Next Generation funtsen bidez finantzatu da, eta Bisitarien Zentroa eraikitzeko proiekturako ideien txapelketa egin da.

Aipatzekoa da Kexaako Monumentu Multzoan egindako ondasun higigarrien inbentario- eta biltegiratze-lana eta bisita gidatuen programak, bai eta monumentu eta aztarnategi arkeologikoen kontserbazio- eta mantentze-lanak ere, dagokien jarraipen teknikoa behar izan dutelako.

Ondare artistiko eta dokumentala zaintzen jarraitu da, bai eta horren gaineko aholku ematen ere, biltegiak eta foru-bildumak hobetzeko. Artium Fundazioarekiko lankidetza ere egiten jarraitu da. Garrantzi artistikoa dela eta, besteak beste, nabarmentzekoak dira zaharberri diren Arabako Arte Ederren Museoaren obra hauek: kobrearen gainean egindako sei margolan, zeinetan Judith-en eta Holofernes-en bizitzari buruzko eszenak jaso diren; Goyaren bi grabatu-sail oso (Gerraren hondamendiak eta Tauromakia); Armagintzako Museoko zaldi-armadura, Kexaako pergaminoak eta Iruña-Veleiako dolia bat.

Aldi berean, kontserbazioan eta zaharberritzean inbertsioak sustatzeko dirulaguntzen urteroko deialdia egiten jarraitu da, toki-erakundeei eta partikularrei zuzenduta, eta laguntza horien zuzkidura pixka bat handitu da.

Adierazleek agerian uzten dute zaintza- eta zaharberritze-jardueren eskaria handia dela: esku-hartzeko eta aholkularitza emateko ia 600 jarduera egin dira, eta 1.100 txosten tekniko eta aholkularitza-txosten baino gehiago, udalerrien % 66ko lurralde-estaldura osatuta.

Jarraipenaren adierazleak

Eremu horretan zentzua duten xedeen berrikuspenean zentratu behar dira ahaleginak, eta ikuspegia osatu.

592
Ondarea kontserbatzeko eta zaharberritzeko egindako esku-hartzeen kopurua

338
Ondarea kontserbatzeko eta zaharberritzeko egindako esku-hartzeen kopurua

% 66
Ondarea zaintzeko eta zaharberritzeko jardueren lurralde-estaldura (udalerrien ehunekoa)

% 71 ✓
Esku-hartzea jaso duten babes bereziko eta ertaineko higiezinen ehunekoa

% 90 ✓
Babes bereziko eta ertaineko higiezinen ehunekoa, EC ebaluatuta

% 77 ✓
Egoera onean dagoen foru-ondare higiezin babestuaren ehunekoa

Ondarea ikertzea, dokumentatzea eta katalogatzea

Helburua da ondare materiala eta immateriala berreskuratzea eta ikertzea.

Aurrera egin da folklorearen elementuak berreskuratzen, Arabako kultura tradizionalari eta ahozko memoriari balioa ematera bideratutako proiektuen babesaren bidez. Egoera horretan, herri-sustraitzeko jarduerak mantentzen dira, hala nola Estibalizko erromeria, gastronomia-lehiaketak eta jaien programazioan sartutako beste ekimen batzuk. Era berean, adierazpen tradizionalei lotutako proiektu espezifikoak babestu dira: esaterako, landako inauteriak edo landa-inguruneko ahozko tradizioaren iraunkortasuna, belaunaldien artean transmititutako kontakizun, abesti, lekukotza eta adierazpen herrikoiak bilduz. Nabarmentzekoa da, halaber, kirol tradizionaleko elementuen inbentarioa egin dela.

Bestalde, hainbat ikastetxeri, batez ere UPV/EHUri, babesa eta laguntza ematen jarraitu da, foru-museoetako bildumetako dokumentu-ondarea, aztarnategi arkeologikoak edo kultura-ondasunak ikertzeko. Ondare garaikidea ere ikertu da. Proiektu batzuk hasi dira arkitektura garaikidearen, upategien auzoen, erloju monumentalen eta balio kulturaleko tokiko merkataritzaren gainean.

Jarraipenaren adierazleak

Aurrerapen handia egin da xedeak gauzatzeko mailan.

19 ✓
Arabako folklorearen eta herri-tradizioen elementuak berreskuratzen lagundu duten ekintzen kopurua

4
Arabako ahozko memoria zaintzen lagundu duten ekintzen kopurua

27 ✓
Arabako kultura-ondareari buruz sustatutako edota parte hartutako ikerketa-proiektuen eta azterlanen kopurua

Plangintza eta kontrola

Horren bidez, Euskal Kultura Ondarearen Legea betetzea bermatu nahi da, eta plangintza espezifikoak egin, aldatu edo berrikusi.

Arabako Arkeologia Jardueren Erregelamenduaren zirriborroa prestatzen aurrera egin da, onartu ondoren, Arkeologia Ondarearen kudeaketa eguneratu eta hobetzeko, indarrean dagoen Euskal Kultura Ondarearen Legeak ezarritako parametroetara egokituta. Bestalde, txostenak egiteko erantzun-denbora hobetzeko lana egiten ari da, eta ondarea kontrolatzeko unitate bat sortzeko aukera aztertzen ari da.

Plangintzaren berrikuspena garatzen ari da, txostena egiten eta paisaia-antolamenduko, -hirigintzako eta -ebaluazioko tresnen ebaluazio-prozeduren kontrola hobetzen jarraitu da.

Adierazleek erakusten dute egindako lan-bolumenaren tamaina, nahiz eta eskabideei emandako erantzuna atzeratuta egon, ezarritako xedeen aldean.

Jarraipenaren adierazleak

Xedeen betetzea egoera onean dago, eta adierazle baten xedeak soilik lortzeko prozesuan daude oraindik.

125 ✓
Aurreko txostenen eta lizentzien gainbegiratzeen kopurua

1.104 ✓
Aholkularitza- eta kontsulta-txostenen kopurua

191 ✓
Baimen-kopurua

787 ✓
Plangintza- eta sektore-txostenen kopurua

Finantzaketa

Kultura-ondareari lotutako pertsonekin eta entitateekin finantzaketa- eta lankidetza-programak sustatu, indartu, aztertu eta hobetzera bideratuta dago.

Lan egin da dirulaguntzen izapide aurreratuak egiteko eta finantzaketa mantentzeko eta bizkortzeko. Gainera, informazioa jaso da dirulaguntzen hartzaileen gogobetetze-mailari buruz.

Jarraipenaren adierazleak

Xedeen betetzea egoera onean dago, eta bi adierazleren xedeak soilik lortzeko prozesuan daude oraindik.

% 81
Aurrekontu justifikatuaren ehunekoa

7,2
Jasotako laguntzarekiko eta aholkularitzarekiko gogobetetze maila (0-10 arteko inkesta)

% 52
Dirulaguntzen lurralde-estaldura (dirulaguntzak jaso dituzten udalerrien ehunekoa)

7,3
Ondarea zaharberritzeko eta kontserbatzeko dirulaguntzen programarekiko gogobetetze-maila (0-10 inkesta)

Aurrerapenen sintesia


Ildoaren jardueren garapen-maila

Garapen-maila positiboa da, nahiz eta osorik egotetik urrun egon, jarduera aurreratuek edo garatzen ari direnek % 62 hartzen dute, eta hasierako faseko jarduerek jardueren % 14.

% 62
Fase aurreratuko edo garapen-faseko jarduerak

% 14
Hasierako fasekoak

% 14
Hasteko dauden jarduerak



Xedeen betetzea (eremu bakoitzeko adierazleak)

Definituta daudenean, xedeen betetzea oso handia da.



5. ildoa (5I). Parte hartzeko eskubidea

Nazio Batuen Erakundearen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunak (PIDESC) —oinarrizko giza eskubideei dagokienez, kulturaren berme juridikoaren muina da— bizitza kulturalean parte hartzeko eskubidearen nagusitasuna ezartzen du eskubide kultural guztien artean. Horretarako, hurbiltasun hirukoitza erabiltzen du: aske jokatzea, bizitza kulturalean parte hartzea eta bizitza kulturalean ekarpena egitea.

Bizitza kulturalari egiten zaion ekarpen horrek, pertsona orok sormenerako duen eskubideaz gain, berekin ekartzen du pertsona horren komunitatearen garapenean parte hartzeko eskubidea ere, bai eta haren eskubide kulturalak baliatzean eragina duten politikak eta erabakiak definitzean, formulatzean eta aplikatzean parte hartzeko ere. Horregatik, botere politikoek, kultura-ekintza gauzatzeko dituzten mekanismoen bidez, kultura-bizitzan laguntzeko eskubide hori baliatzen lagundu behar dute.

Arabako Kultura Planaren ildo estrategiko bat parte hartzeko eskubidea bermatzera bideratuta dago. Horretarako, espazio parte-hartzaileak sortzea bultzatzen du (batzordea, mahaiak, espazioak eta lantaldeak), herritarrek kultura-politiken konfigurazioan parte hartzea sustatzeko. Horretarako, ikuspegi desberdinak bultzatzen ditu, eta gizarte zibila Arabako lurraldeko kultura-panoraman eragina duten erabakiak hartzen inplika dadin bultzatzen du, erabakiak hartzeko prozesua demokratizatzeko eta irisgarritasuna eta inklusibitatea sustatzeko.

Ildo estrategiko hori bi eremutan eta 6 jardueratan hedatzen da.

Arabako Kultura Batzordea

- Araban Kultura Batzordea sortzea
- Parte hartzeko guneen sorrera bultzatzea
- Mahai iraunkor sektorialak edo arlokakoak sortzea
- Gazteen parte-hartzea sustatzea
- Kulturarekiko zeharkako gaiak lantzeko lan-espazioak sortzea
- Lurralde eta sektore taldeak Arabako Kultura Planean inplikatzea

Parte hartzea

- Kulturarekiko zeharkako gaiak lantzeko lan-espazioak sortzea
- Lurralde eta sektore taldeak Arabako Kultura Planean inplikatzea

Balorazioa

Arabako Kultura Batzordea

Helburua da herritarren eta kultura-eragileen parte-hartzea indartzea Arabako kultura-politiken definizioan eta ezarpenean.

2024an Arabako Kultura Foroaren bigarren edizioa antolatu zen. Lurraldeko kultura- eta sormen-sektorearen topagunea da, eta bertan Arabako Kultura Batzordearen oinarriak ezarri ziren. Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 17ko 26/2024 Foru Dekretuaren bidez sortu zen, eta eremu horretako mugarri bat da. Hamalau pertsonak osatzen dute, eta honako hauek dira: Kultura Saileko lau pertsona, Kultura eta Kirol diputatua batzordeburua da; eta 2 pertsona gaur egun dauden 5 mahai sektorialetako bakoitzeko.

Herritarrek eta kultura-sareak Arabako kultura-politikak definitzean eta ezartzean duten parte-hartzea indartzeko helburua dauka, kultura-ekosistemaren ikuspegi askotarikoak integratzen dituzten elkarrizketa-espazioak sustatuz. Batzordea lurraldeko kultura-politikak ekartzeko, eztabaidatzeko eta kontrastatzeko foro nagusia da. Ikuspegi horretatik, parte hartzeko esparru nagusia da. Sektorearekin kontrastatu ondoren, funtzionamendu-erregelamendua onartzeaz gain, bost mahai sektorial diseinatu eta sortu dira, zehazki, honako hauek: Artikulazio Zerbitzuak; Artea eta Diseinua; Zuzeneko Arteak; Literatura Sorkuntza, Liburutegiak eta Argitalpen-industria; eta Lurraldeko Mahai Iraunkorra.

Gazteen parte-hartzea indartu nahi da, bai eta beste arlo batzuekin (turismoa, sustapen ekonomikoa...) zeharkako espazioak sortzeko aukera ere aztertu. Gazteen parte-hartzeari dagokionez, kontuan izan behar da Arabako Kultura Batzordea abian jarri berri denez, lan-ildoak eta lehentasunak aztertzen ari direla.

Jarraipenaren adierazleak

Arabako Kultura Batzordea proiektu estrategiko berria da, eta jarraipen-adierazleek ez dituzte xedeak bete, proiektua garapen-fasean dagoelako.

2
Lurralde-koordinaziorako mahai iraunkorraren bilera kopurua

1
Arabako Kultura Batzordearen bilera-kopurua

6
Sektoreko mahaien kopurua

Parte hartzea

Herritarrek eta kultura-eragileek erabaki kulturalak hartzeko prozesuetan parte-hartze eraginkorra izatea lortu nahi da.

Parte-hartzea sustatu da AFAk bere gain hartu duen rol dinamizatzailearen bidez, eta lurralde- eta sektore-taldeak inplikatu ditu (museografia, ondare arkeologikoa, artxiboak, dokumentu-kudeaketa, etab.). Alde horretatik, Arabako Kultura Batzordearen organoa sortzea bultzada garrantzitsua izango da, eragileen eta erakundeen artean erabakiak hartzeko prozesu partekatu batean aurrera egiteko.

Parte-hartzea bermatzeko tresnen artean, honako hauek nabarmentzen dira: alde batetik, Artxiboko, Foru Museoetako eta Kultura Etxeko Zerbitzuen Kartak egitea, argitaratzea eta ebaluatzea, eta, bestetik, dirulaguntzen onuradunen eta artxiboko, museoetako eta liburutegiko bisitarien artean abian jarritako gogobetetasun-inkestak.

Jarraipenaren adierazleak

Parte-hartzearen eremuaren helburuak lortzeko zailtasunak daude, zer errealitate neurtu eta nola neurtu erabakitzeari lotuta. Gainera, Arabako Kultura Batzordea ezartzeko proiektu estrategikoari lotuta dago, eta proiektu hori prozesuan dago. Horregatik, oraindik ez da xederik bete, eta xede batzuk definitu gabe daude. Horrez gain, parte-hartzearen berri emateko adierazle gehigarriak oraindik definitu daitezke.

0 %
Kontsulta publikoetan ekarpenak jaso dituzten arau-proiektuen ehunekoa

43
Jasotako iradokizunen kopurua (inkestak/postontziak)

Aurrerapenen sintesia


Ildoaren jardueren garapen-maila

Jardueren garapen-maila positiboa da, eta jardueren % 17 soilik daude hasteko. Erdiak garapen-fasean daude, eta heren bat amaituta edo fase aurreratuan daude.

% 34
Jarduera amaituak edo aurreratuak

% 50
Garapen-fasean dauden jarduerak

% 17
Hasteko dauden jarduerak



Xedeen betetzea (eremu bakoitzeko adierazleak)

Garatzen ari den proiektu garrantzitsu baten ildoa da (Arabako Kultura Batzordea), baina eremu horretako eraldaketak oso motelak izaten dira, beren ezaugarriengatik; beraz, prozesu-fasean dago, eta helburu bat behar bezala definitzeko bidean dago.



6. ildoa (6I). Hizkuntza-eskubideak

Arabako Kultura Planaren oinarrian kultura-planak jartzeko logikari jarraituta, hizkuntza-eskubideak lotutako eskubidetzat hartzen dira, oinarrizko beste eskubide batzuekin batera. Gai horretan ez dago hizkuntza-eskubideez arduratzen ez den adierazpen, esparru edo erreferentzia bakar bat.

Nazio Batuen Elkartearen Itunetan —giza eskubideak garatzeko eta ezartzeko nazioarteko lege-tresnak dira— zein UNESCOren esparruan, honako oinarri hau hartzen da kontuan: hizkuntzak, komunikabide bat izateaz gain, kultura-adierazpenen egitura bera dira, eta identitatea, balioak eta munduaren ikusmoldeak jakinarazten dituzte. Bereziki aipatzekoa da Hizkuntza-eskubideen Adierazpen Unibertsala, 1996an onartua. Horren arabera, funtsezko premisatzat hartzen da pertsona orok aukera izan behar duela bere lanak nahi duen hizkuntzan eta, bereziki, bere ama-hizkuntzan adierazteko, sortzeko eta zabaltzeko.

Printzipio horiekin bat etorriz, Arabako Foru Aldundiak Euskararen Erabilera Sustatzeko 2025-2029 Plan Estrategikoa onartu berri du. Kultura Zuzendaritzak aktiboki parte hartzen du Euskara Planaren Lan Mahaian eta Arabako Euskararen Batzordean, eta lurraldearen kultura-eremuan euskararen erabilera eta presentzia sustatzen duten jarduera-ildoak definitzen eta garatzen laguntzen du.

Kultura Planean adierazten den bezala, komunikazio-hizkuntzak kultura definitzen du neurri handian. Gizarte garaikideak multikulturalak eta eleaniztunak dira, eta botere publikoek, beren politiken bidez, bermatu behar dute herritarrek herrialdeko hizkuntzan erabat bizitzeko duten eskubidea. Hala, euskarak komunitatearen kultura-bizitzaren esparru guztietan egon behar du presente, hala nola arteen sorkuntza, prestakuntza eta zabalkunderako espazioetan, ondarean, kultura tradizional eta herrikoian eta bestelakoetan. Baina parte hartzeko guneen, komunikazioaren, argitalpenen eta abarren hizkuntza ere izan behar du.

Ildo estrategiko hori 9 jardueratan gauzatzen da.

Hizkuntza-eskubideak

Plan honetan hartutako neurriak beti euskaraz egiten direla bermatzea.

Kultura eragileen artean euskararen erabilera sustatzea.

Era guztietako kultura-programazioetan euskararen presentzia sustatzea eta bermatzea.

Ondarea zabaltzeko eta ezagutarazteko atarietan euskarazko edukien kopurua handitzea

Liburutegiko bibliografia funtsak eguneratzea

